

Nafarkaria

• ostirala • 2000ko ekainaren 23a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Urdazubi • Herriko 37 emakumek osatzen dute aisialdirako Ugarana talde berria

Xabi eta Raul (EHGAM) • “Ez dugu ‘ghetto’ batean egon nahi, baina askatuz joateko toki bat behar dugu”

Kuban aullki gurrpildunetan



• JOXE LACALLE



• JOXE LACALLE



Kuban, Parisen edo Italian. Kontua da han edo hemen opor normalizatuak izatea. Nafarroako Gutitu Fisikoen Koordinakundeak hainbat bidaia antolatu ohi ditu bere bazkideendako, eta oraingoan Kubaraino eraman ditu ezinduak oporraldi “normala” igarotzeko nahi horrek. Guama uharte exotikoan izan ziren, baita Varadero uharte sobera turistikoan ere. Eta Habana Zaharreko karriketan kantatu zuten La Bodeguita del Medio tabernako musikariekin. Turista moduan joan ziren, eta turista arrunten gisara astebete gogoangarria pasatu zuten Kuban.

Leitza •

Gorritzaran auzoko eguna

Herri kirolez eta musikaz gain, txintxurrin txapelketa egingen da igandean

Leitzako Gorritzaran auzoko lagunek igande honetan Pedro Deunaren omenezko eguna ospatuko dute.

Aurten, egitarau zabala prestatu dute eta eguraldi ona izan ala ez, giro paregabea izanen dute seguru.



Igandean, txintxurrin txapelketaz gain, herri kirolak eta musika izanen dira Leitzako Gorritzaran auzoan • EGUNKARIA

EZKURREKO BIDEAN KOKATuta dago Leitzako Gorritzaran auzoa. Bertako lagunek Pedro Deunaren eguna ospatzen dute urtero, eta nola ez, aurten ere, bestarako prest daudenez, herri kirol, musika eta txintxurrin txapelketaz osatutako egitaraua osatuta dute. Igandean eguraldi txarra egin edo ez, giro paregabea ospatuko dute Gorritzarangoek bere eguna. Aurten ez dakite arrautzak Lekunberriko Komentura eraman ala ez, iaz eramateak ez baitzien eguraldi ona ziurtatu, baina horregatik ez dira ikaratuko.

Ospakizunak 09:30ean hasiko dira, Ezkurreko gainera iritsi baino lehen dagoen ermi-

tan. Herri kirolak izanen dituzte han. Lasterkan, harri jasotzen edo sokatiran nahi duten guziek parte hartuko dute. Gero, Aresoko Jaione eta Mikel Olazabal anai-arreben kontzertua entzun ahal izanen da. Akordeoia, txistua eta trikitixarekin nahiko dantza egiteko aukera izanen dute Gorritzar-

rango eguna ospatzera biltzen diren lagunek, egunean zehar trikitilariak bazter guztiak alaitzen saiatuko baitira.

Txintxurrin txapelketa

Dantza egin ondoren, bazkaria izanen dute. Gaur azken eguna da bazkarirako txartela eskuratzeko. Beraz, bertan

izan nahi dutenek Basa-Kabi jatetxetik pasatu beharko dute. Bapo bazkaldu eta gero, XVI. mus txapelketa jokatu da, eta ondoren dantzaldiari hasiera ematen zaio. Amalur taldekoak arduratuko dira 19:00etatik gauerdia arte jendea dantzan jartzeaz. Baina tartean XVII. txintxurrin txapelketa egingen da, eta animo handia duten lagunek eta bere ausardia erakutsi nahi dutenek aukera izanen dute horretan.

Ausarta izateaz gain trebea ere izan behar da antzina artzainen kirol edo joko zen honetan. Oso zaila baita lurrean kokatuta dagoen pezeta arrastaka ekartzea; hankak arrasto baten atzealdean jarri, eta esku baten gainean, gorputzeko karga guztia esku horren gainean jarrita, txanpona mugitu behar da. Jokoa irabaziko du txanpona urrutien eraman eta gorputza altxatzerik duenak.

Beste aldetik, igande honetan, Unai Arzallus Aurrera futbol taldeko jokalaria zenaren aldeko elizkizuna ospatuko da Leitzako Mikel Deunaren parrokian. Taldeko lagunek aurtengo denboraldia bukatu eta gero, Unai eskaini nahi diote Preferente mailarako igoera.

→ Eli Belauntzarán

Bera

Antzerki tailerren topaketa San Joan arratsean

JOAN DEN ASTEAN MUGAZ Gain antzerki taldearen barranean Berako ikastetxeetako bortz antzerki taldeek ikasturtean egindakoa aurkeztu ondotik, helduen hiru antzerki lantegiek euren emanaldia eskainiko dute gaur kultur etxean, 20:00etatik goiti, San Joan arratsa ospatzeko.

Azken urteotan antzerkilaritza bizkor dabil Beran. Ikastetxeetan egiten den lana ez ezik, 1992az geroztik Lamixine BAT antzerki taldeak duen lantegiak bilakaera handia izan du. Lantegi horretatik talde batek muntaia profesionala aurkeztu zuen joan den urteko udazkenean, eta talde berri batek osatzen du Lamixineko tailerra. Baina helduek osatutako talde hau ez ezik, bertze bi talde ere ari dira antzerkigintza lantzen, aski ezaugarri diferenteeekin. Hirurek elkarrekin eskainiko dute gaur arratsean. Topaketan Emaizta emakume taldea eta Inprobisazio taldea ere ariko dira.

Ikuskizunak zer bilduko duen ez dute jakinarazi antolatzaileek. «Urtean honetan egindako lanaren emaitza baino ez da taularatuko, ez antzezlan bat», jakinarazi dio Joxelu Berasategi Lamixine BATeko kideak. Topaketaren helburua herrian antzerkiari lotutako jendea elkartzea eta herriak urtean zehar egiten den lan horren berri izatea da.

→ Jon Abril

zubian barna

BINGEN AMADOZ



Trianako zubian

Triana auzoko Castilla karrikatik El Cachorro gurutzaduna daramate, prozesio geldoan, ibilbide luzean, ongi zenbatutako neurketari atxikiak geldidunak. Haren aldera tinko begiradak. Errespetuzko ixiltasun garbia. Airean elkarri gurutzatuz, balkoi honetatik orain, beste leiho hartatik gero, emakumezkoen ezarritik gehienetan, lanturu moduko doinu zirraragarriak. Erreguak, otoitzak, bertako sinesmenen adierazpenak. Saetak. Gurutzadunari Trianako zubian labanaz zauriturik, hiltzorian zegoen ijitoaren aurpegia jarri zion bere egileak. El Cachorro zen ijito horren izengoitia. Auzoak ederki eza-gutzen zuen. Ez zuen gero zalantza izpirik

izan Kristoren irudia kalean ikusi zutenean. Hura zen ijito gazte haren aurpegia. Ez bakarrik aurpegia. Zabalik, oinaze keinu nabarmena erakusten zaigun irudiaren ahoak baditu aho-sapaia, hortzak. Zubian ikusitakoa errealtate osoz islatu zuen irudigileak Trianako auzoak hain berea duen Jainko-gizonaren ordezkapenean. Harentzako dira larritasun handietan egin beharreko eskakizunak... saetzen bitartez bideratutakoak.

Castilla izena daraman Triana auzoko kale nagusian betiere, gure gaineko balkoi batean beltzez jantziriko emakume gazte bat ari da orain bere erregua airean botatzen. Hatsari eutsiz jendea adi-adi behetik. Hitzak ulertzea

zaila egiten zait. Baina esaten duena barne barnetik ateratzén zaio, indar handiz, sentimendu osoz... hunkigarria egiten da guztiz, sailhetsezina bihotzean sortzen duen urradura... amaitu da bere kantua... nire ondokoak ongi baino hobeto ulertu du besoen mugimendu bortitzez emakumeak egiten zuen eskaeraren muina: senda ezazu nire anaia!!! Arrazoi tinko, ezinbestekoa bazuen mezu horrekin bat egiteko. Ni eta nire ingurukoek ez dute seguruenera antzeko egoerarik gertu, baina berdin berdin xukatu behar izaten ditugu beherantza dihoazkigun malkoak.

Andaluziako magiak esperogabea ederki harrapatu gaitu.

Urdazubi • Ugarana elkartearen sorrera

Urdazubiko 37 emakumek osatzen dute aisialdirako talde hau

Nafarroako iparraldeko herrixka aunitzetan aspaldidanik ikusi zen elkarteak osatzeko beharra. Lehenik gizonezko taldeak osatu ziren, eta orain emakumeek ere denbora libretea bete nahi dute.



Argazkian Urdazubiko Ugarana erreka. Errekaren izena eman diote emakume elkarte berriari. • EGUNKARIA

URDAZUBI HERRIAK 600 biztanle ditu gutxi gorabehera. Duela gutxi arte, herrixka aunitzetan bezala, ez zegoen zeregin handirik aziendak eta baratzeak ematen zuten lanak alde batera utzirik. Duela hamasei urte Urdazubiko udaletxean josten ikasteko ikastaroak ematen hasi ziren EParen laguntzarekin. Erakunde honek kontratatatu zuen irakaslea, Anastasi Bidart. Ondotik, Udalarai zegokion Emakumearen Institutuan laguntza eskatzea. Biztanleek, beste edozein ikastaro egin nahi bazuten, herritik kanpo atera behar zuten, Elizondora, Iru-

ñera edo Iparraldera. Behar hau ikusirik, jostunen taldea osatzen zuten emakumeek diru laguntzak eskatzeko elkarte bat osatzeko beharrezkoa zela ikusi zuten. Hasieratik izan zuten Urdazubiko Udalararen laguntza. Honela bada, Ugarana elkarteak osatu zuten iaz 37 emakumeekin. Ugarana izena herriko errekatik hartu zuten.

Ugarana emakumeen elkartearen helbururik garrantzitsuenetariko bat herriko adineko emakumeak etxetik ateraraztea da. Betidanik gizonezkoek pasatu izan dute denbora gehien etxetik kanpo. Orain emakumeek eman nahi zaizkie irtenbideak. Hasierako txostenean Ugaranak memoria lantzeko ikastarorako, eskulanetarako eta beste-

tan antzezteko kafe antzerkirako eskatu zen diru laguntza. Aurrekontua 800.000 pezetakoa izanik, 125.000 besterik ez dituzte jaso. Argi dago ekitaldi asko bertan behera gelditu direla, baina emakume talde honek ez du ilusioa galtzen. Momentuz herriko bestetan emakumeen bazkari bat antolatu zuten eta adin guztietako 59 emakume bildu ziren. «Politena zen 60 urteko emakumei entzutea aspalditik ez zutela horrelako Salbatore jairik pasatu», azpimarratzen du Anastasi Bidart Ugarana elkartearen lehendakariak.

Taldearen barruan 16 urte-tik 60 urte arteko emakumeak daude. Bakoitzak urteko 1.000 pezetako kuota ordaintzen du. Ugarana elkartearen gogoak Zugarramurdiko emakumeekin loturak sendotzea da. Momentuz josteko ikastaroa bi herritan martxan da, astelehenetan Zugarramurdin eta astearteetan Urdazubin. Anastasi Bidarten esanetan, «gizon aunitzentzat feministak gara, guk, ordea, argi daukagu emakumeek Urdazubin dituzten aisialdirako beharrak bete nahi ditugula». Elkarteak bazkari bat antolatu nahi du irail aldera.

→ Rakel Goñi



herri aldizkariak
Miren Iriarte

Jon Arrizibita apez abertzalea gogoan

Beteluko Jon Arrizibita apez abertzalea izan du gogoan **Mailope** aldizkari-ko azken zenbakiak, eskualdeko pertsonaiei eskaini txokoan, Betelu eta Intzako apez Kepa Ezeolazak idatzitako artikuluen bitartez: «Langile langileekin eta lankide lankideekin. Une berean anitza eta orohar arraildurarik gabeko nortasun gizona. Betirako beste bizitzara aldatu da 2000ko apirilaren 5ean, eta historiara iragan du, Euskal Herriko izar apal baten txinparta gure artean utziz. Zalan-tzarik gabe, gaurko eta atzoko haundiki askoren izenak eta aztarnak

ahanzmenduak irentsiko ditu. Jonen hazia, aldiz, loratuko da, eta bere izenak herriaren bihotzean eta oroigarrian luzaro iraungo du».

«Gure artean beti ikusi dugu langile eta lankide, xume, zaratarik gabe. Baina beti tematia, eta batzutan zakar, bere ustez, herriaren eskubideak kolokan baldin baziren, edo berak proposatzen zuena herriaren onerako baldin bazen. Noski, ez zuen beti arrazoirik izaten, guztiok bezala mugak bazituen eta akats nahiko. Bere herriaren eraikuntzak ahalegin

guztiak eskatzen zituela hasiera hasieratik jabetu zen, eta ez zen errekararitzetan aritu. Euskara irakatsi behar zen? Horra hor Jon, irakaslea. Kooperatiba bat antolatzea erabaki dute inguruko nekazari-ek? Jonek bere burua eskainiko du kamioneta batekin esnea biltzeko. Zenbat aldiz egin ote du taxista lana, Iruñean herrikoek ulertzen ez zituzten paperak bideratzeko? Ekologista amorratua, autobidearen auzian sartuta ibili zen aldaketa hobekuntza nabari asko lortu arte».



ur dai aren mintzoa

Xabier Larraburu

Kunta Kinte Larraburu

XXI. mendea etorriko da, eta igaro ere igaroko da. Gero, pixka bat beranduxeago, Martitzetik Nafarroara Michael Junior Larraburu izeneko bat etorriko da. Ogibidez Martitzeko Kolonietako CyberEngineer izango da. Bere kontu korrontean emaitza 900 Gigadolarretakoa izango da. Planeta urrutitako gauetan Herrimin bitxi batek ukitua, gure Michael Jr. Larraburu bertako agintariekin bilduko da. Dударik gabe, ongi etorri handia eskainiko diote, eta hortik aurrera bere izena izango duen Martitzeko Telekiosko bat inauguratu ondotik, bere bidaia luzearen zioaz galdetuko diote. CyberEngineer ospe-tsua orduan: «Nire abizenaren atzetik etorri naiz», esango du. «Arbasoen arrastoen berri izateko etorri naiz. Hiru hitzek argitu didate bidea. Hiru hitz hauek amarengandik ikasi nituen, berak bere aitarengandik ikasi zituen modu berean, aitonak aitonarengandik ikasi zituen bezala. Hauek dira hitzak: Lurra, ilargia, ibaia (sic)», esanen du. «Asmatu duzu gizona», erantzungo diote, horrek euskara dirudi, saiatuko gara, beraz, Larraburutarren berri bilatzen». Eta horrela Megamacintosh batean «Larraburu» sakatu eta urrutiko arbaso baten lana erakutsiko diote. Larraburu baten lana. Digitalizatua izango duten Nafarkaria baten zutabetxoa. Euskaraz idatzia! Michael, erabat hunkiturik, «Zertaz ari zen?», galdetuko du. Bertakoek burua mugitu eta «inork ez daki», erantzuten diote. «Dena galdu da dagoeneko. Gauza bakan batzuk uler ditzakegu», gehituko dute: Takonera, zuhaitz, esate baterako. Baita Pegenaute ere. Azken hau Garai Haietako Euskararen Garapenerako buru omen zen». Michael Junior ixilik geldituko da. Lurra, ilargia, ibaia. «Hori al da gelditu den guztia?», pentsatuko du. Hori eta Pegenaute. Michael Jr-k denboraren ironiaz hausnarke-ta egingo du: «Euskara galdu da eta bere Garapenez ardurtzen zenaren izenak iraun du ordea». Iribarre txiki eta triste batekin, erabakia hartuta, horrela aginduko die etorkizuneko funtzionarioei: «Egidazue fabore bat. Ezaba ezazue Pegenaute izen hori digitalizazio guztietatik». Eta horrela egingo da, eta horrela Michael Jr. Larraburu Martitzera itzuliko da, bere gau arraroetara, non Deimos eta Fobos sateliteek bere Herrimin bitxia argitzen segituko duten. ●

Gutituen oporrak

Nafarroako zenbait ezinduk astebete eman dute Kuban, oporraldi «normalak» izan nahian

KUBARA JOATEARENA BIDAIA PILOTA ZEN, gutituen koordinakundeko aisiaren koordinatzaile Begoña Ugalek komentatu duenez. «Ekainaren 2tik 8ra 25 pertsona joan ziren Kubara. Horieta-ko zortzik aulki gupildunak zeramatza-ten, beste zortzi laguntzera joan ziren eta besteek ere bazuten ezintasunen bat. Beste bidaietara jende gehiago joan ohi da, baina honek beldur pixka bat emanen zigun. Ez genuen Kuba ezagutzen, ez genuen esperientziarik. Bidaia pilotoa zen, eta badaezpada, jende guti eraman genuen».

Koordinakundea 1978an sortu zen, egun 2.000 bat bazkide ditu, eta oporren programak badaramatza zenbait urte martxan. Dagoeneko, hartua zuten abioia Parisa edo Italiara joateko. «Baina Kubara, hain toki urrutikora oraindik ez», dio Ugalek. «Kubarako jauzia handia zen».

«Opor normalizatuak»

Eta ikusi beharreko guzia ikusi zuten, «inolako mugarik gabe», koordinakundeko lehendakari Ana M^a Gerendiainek baieztatu duenez. «Bidaia piloto bezala ikusten genuen, ordu asko zirelako eta ez genekielako nolakoa zen hangoa. Ez genekien zer aurkituko genuen. Eta oso hotel onak aurkitu ditugu. Habana Zaharrekoa hagitz ona zen, zerbitzua zein logelak. Eta Varadero-ko hotela ederra zen oso, dotorea, baina logelak ez ziren horren onak». Guama uhartean izan dira, «aborigenekin»; Varadero turistikoa bisitatu dute; Habana Zaharreko karriketan kantatu, dantzatu eta mojitoa edan dute; eta Karibeko ur gardenetan bainatu dira. Hori bai, boluntarioen laguntzaz, uretara sartu eta ateratzeko laguntza behar baitzuten.

«Opor normalizatuak izan ditugu eta hagitz ongi pasa dugu», dio Gerendiain lehendakariak. «Kubara joan gara, eta orain edonora joan gaitzek». Bidaia ordaintzeko Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Kutzaren laguntza izan dute, eta bidaiariek irabazten dutenaren arabera ordaindu dute. Aurtun beste bi bidaia dituzte antolatuturik. Laster, Benidormera joanen dira 45en bat, eta gero, abenduan, Huelvara».

«Nik ere oso ongi pasatu nuen», erran du koordinakundeko proiektuen ardura-dun Jesus M^a Vacak. Bera laguntzaile moduan joan zen. «Oso esperientzia ona izan da. Toki asko ezagutzeaz gain, jendearekin harreman estua sortzen da,

joan eta etorriko dependentzia harremana. Oso onuragarria izan da».

Turisten deserosotasunak

Bidaien helburua da pertsona hauek bere oporrekin gozatzea, edozeinek egiten zukeen gisara. «Hori lortzen ari gara asko borrokatu eta gero», dio Gerendiainek. «Erran dezakegu orain erabat integraturik gaudela oporren esparru horretan. Kubako egonaldia ezin ederragoa izan da. Oporrak primerakoak izan dira». Dena den, edozein turistari gerta lekiokeen gisara, deserosotasun eta oztoporik ezin falta Kuban, garraio kontuetan batez ere. Kubara hegazkinez joan zirenean, aitzinaldean kokatu zituzten, legeak dioen bezala, ezinduen sarrera errazteko. Baina itzulikoan atzealdean paratu zituzten. Bestetik, uhartetik mugitzeko egokitu gabeko autobusak erabiltzen zituzten (bestelakorik ez dagoelako, noski), eta boluntarioek asko sufritu behar izan zuten gutituak sartu eta ateratzeko.


«Baina oztopo horiek hemen ere badi-tugu», dio Vacak. «Eta oztopo arkitektoni-koei dagokienez, Kuban hemen bezala daude. Tira, agian okerrago daude, dirurik ez dutelako, baina, bestela, hemen bezala».

Oztopo arkitektonikoen kongresua

Bidaiatik bueltan, ekainaren 16 eta 17an, Nafarroako, Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko, Baionako, Errioxako eta Zaragozako gutituen elkarteek kongresua egin zuten Iruñean ezinduek jasaten dituzten oztopen inguruan solasteko. «Elkar ezagutzea zen helburu nagusia», dio Vacak. «Eta elkarte guzien artean lan tailerra osatuko dugu. Urrian izanen dugu hurrengo bilera, eta gai zehatzak aztertuko ditu. Izan ere, hobe da abstrakzioak alde batera uztea eta gai zehatzak jorratzea. Adibidez, hurrengo bileran aulkiekin espaloietara igarotzea laguntzen duten mal-den inguruan hitz eginen dugu: zer den, zein angelu izan behar duen, nori eskatu behar zaion, eta abar».

Nafarroako Gutituen Koordinakundek dituen proiektuak aipatu eta Vacak Habana Zaharrean ikusi zuen mutiko bat ekarri du gogora. «Hagitz aulki zaharkitua zuen», dio. «Horregatik, Kubara zortzi aulki eraman genituen, baina bost bakarrik ekarri».

→ Testuak: Asier Azpilikueta
Argazkiak: Joxe Lacalle



Nafarroako Gutitu Fkoen Koordinakundeak hbat bidaia antolatu ohi d bere bazkideendako. Orajon, Kubaraino eramanitu ezinduak oporraldi «normalak» izarotzeko nahiak. Gama uharte exotikoan izadira, baita Varadero turistiken ere. Eta Habana Zaharko karriketan kantatu de La Bodeguita del Medio tarna-ko musikariekin. Turista runten gisara astebete gogogarria pasatu dute Kuban.



Guama uhartean, «aborigenekin»

Nafarroatik abiatuturiko gutituak Guama uharte exotikoan izan ziren egun batez. Aborigenena egiten zuten funtzionarioekin izan ziren bertan. Funtzionarioak zirela jakin zuten argazkiaren truke dirurik eskatzen ez zutelako.



Habana Zaharrean, dantzan

Turistek «lurraren aldeko» manifestazio ekologista, koloretsu eta zaratatsuarekin egin zuten topo Habana Zaharreko karriketan. Ana M^a Gerendiain lehendakariak ezin izan zion bere gorputzaren bizitasunari eutsi, eta pailazo kubatar batekin dantzatu zuen.



Arazoak garraioarekin

Kubatik mugitzeko, egokitu gabeko autobusa erabili zuten. Boluntarioek izerditan blai bukatzen zuten gutituak autobusetik jaitsi eta autobusera igo behar zituzten bakoitzean. Behintzat, irudiko ahalegina eta gero, Kubako piña iragazirik onena hartu zuten Bahia Cochinosen.



Kuban ere badaude

Habana Zaharreko karriketan sartzen ari zirela, lau orrialdeko egunkaria dolar baten truke saltzen zuen ezindua topatu zuten. Egunkariak zuzeko «makuru» baten barnean garraiatzen zituen. Gerendiain lehendakariak ale bat erosi zion.



Dolar baten truke

Habanako lorategietan, bertakoekin argazkiak egiteko parada ezin hobe dago, baita beraiekin habanerak kantzeko aukera ere. Baina eztarria dantzan jarri eta gero, argazkia egin eta gero, dolar bat ematea ezinbesteko zeregina da.



Allez, Osasuna

Osasunaren igoerak Kuban harrapatu zituen nafarrak. Katedraleko plazan izan zuten horren berri eta mojitorekin ospatu zuten. Geroztik, argazkietarako, «patata» erran ordez, «allez, Osasuna, allez, allez» kantatzen zuten.

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Etxalarko euskal idazleak (1)

Eusebio Elzaurdia eta Teodoro Arburua Euskaltzaindiak izan zituen lehenbiziko euskaltzain urgazleetakoak izan ziren, eta lan ederra egin zuten Azkueren Erizkizundi Irukoitzaren galderak Nafarroan eginez.



Eusebio Elzaurdia Zubieta

Ezagunagoa izan zen bere kaputxino izenez; Eusebio Etxalarkoa, hain zuzen ere. Bortziriko Etxalarren jaioa, 1874ko abenduaren 16an. Anaia txikerren ordenan Santanderko Montehanon sartu zen; fraidetxea 1890eko abuztuaren 2an egin zuen, Bilbon, eta apeztea, berriz, 1898an. Zenbait urte Lekarozen irakasle eman ostean, Nullius barrutiko Pardoko komentura eramane zuten 1900ean hango bikario eta zaintzale, baina barruti hori desagertu zenean, Tuterara egin zuen lehenbizi, Erriberako hiriburuan bulta laburra eman zuelarik, eta, azkenik, 1909an, Lekarozera joan zen, eta hantxe 1956an zendu zen arteraino geratu zen. Ikerlari fina, euskaraz zein ekialdeko hizkuntzetan jakintsu handia izan zen; hebraiera, arabiera eta hizkuntza semitikoak ongi zekizkien, eta horrek aukera eman zion bere lanik ezagunena egiteko, hau da, Iruñeko Eliz-nagusiko kutxatxo hispaniar-arabiarrean agertzen den izkribuaren interpretapena, Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordearen buletinean 1921ean argitaratu zena, *Datos para la historia del arte: arquilla hispano arábica de la Catedral de Pamplona*. Bide beretik, 1935eko buletinean *La inscripción de la gaveta de Abdelmelik* artikulua jakinarria agertarazi zuen. Bestalde ere, elkargoaren buletin berean, Nafarroako Foruan agertzen diren euskal hitzei buruzko lan sakona egin

zuen 1920 eta 1921 urteetan, *Voces vascas en los fueros de Navarra*, baita Leloko kantuzko burutapenak plazaratu ere 1925ean, *El canto de Lelo: el canto de los cántabros*, eta erromatarren garai-ko inskripzioetan agertzen diren euskal arrastoez 1933-1935 bitartean, *Palabras vascas en monumentos romanos*. Euskal toponimiaz lan luzea prestatu zuen, *Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos*, Carreras Candiren *Geografía del País Vasco-Navarro* entziklopediaren Nafarroari buruz Altadillek zuzendu alekian agertu zena.

Eusebio Elzaurdiak erakutsitako jakintza zela bide, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle egin zuen 1919tik beretik. Akademian egin zuen lanik garrantzitsuenak, berriz, Azkuek aitzinatu Erizkizundi Irukoitzaren inguruan egin zuen; izan ere, euskal herrietan lekeitiarraren inkesta egin zuten galdeztaille emankorrenetakoa baitugu etxalartarra, Nafarroarako batik bat, non

ko Iriberri, Lantz, Lizaso, Olló, Oroz-Betelu, Oskotz eta Osteritzen. Nafarroatik kanpo ere, Lapurdiko Saran eta Kanbon egin zuen. Zoritarrez, Etxalarko kaputxinoak beteriko kaier guztiak ez zaizkigu iritsi, eta gutxi batzuk baizik ez dira ezagutzen direnak, horien artean herri erabat erdaldunduenak daudelarik; esaterako, Ollókoa.

Teodoro Arburua

Arras gutxi da apez eta idazle honi buruz dakiguna, eta ikerketa sakonago baten beharrea bagaude zinez. Etxalarren jaioa, apezte ostean sorterrian jardun zuen apez-laguntzaile 1924-1925 urteetan behinik behin. Eusebio Elzaurdia bezala, eta Aingeru Irigaraiarekin zein Arrigarai kaputxinoarekin batera, Euskaltzaindiaren sorreratik beretik daukagu euskaltzain urgazle, eta honetan ere lan ederra egin zuen Erizkizundi Irukoitzaren galderak Etxalarren, Zugarramurdin eta Urdazubin eginez. Tamalez, honen kaierrak ere galdurik ditugu gaugerero. Bestalde, Iruñeko Euskararen Adiskideek 1926an deitu zuten bigarren literatur sariketan Teodoro Arburuak lehenbiziko saria jaso zuen laugarren sailean; Nafarroako ipuin eta istorio herrikoia biltzeko eratu zen sailean, hain zuzen ere. Alta, lana argitaratzeko dugu, eta udal artxi-boan datza horren zain. Horretaz guztiaz gainera, Arburua *Euskal Etnalea* aldizkarian argitara eman ziren lan gutxi batzuen egilea badugu: *Uso eizkera zar pollit bat* 1916an, *Uts bat* eta *Izkirimi-riak* 1917an, eta *Euskara ta yaupariak* 1920an.

honako herri hauetan egin zituen: Abaurregaina, Aintzloa, Altsasu, Azparren, Beorburu, Bidankoze, Donamaria, Elgorriaga, Saraitzuko Espartza, Ezkarotze, Ihabar, Ihaben, Aezkoa-



etorri ahalean

Patziku Perurena

ooo



Amodio Morbosoz

S eguru aski ere, arrazoi osoz, haren urre dizdizaria eta nere burnije zar herdoituak nahastuz, txatar komertziala egiten dudan plagiatzaile ziztrintzat joa nautan lagun zahar batek. «morbo amorosaz eta poetez» mintzo delarik, hala dio pasarte batean:

«Mendebaldeko kulturen, greziarregandik hasi eta, haiek baino askoz lehenagoko jakite osasuntsu bati jarraiki, XVIII. mendera arte, gaitzat joa izan da poetek kantaturiko amodioa.

Feijoo, hain kezkatua beti giza osasunaz, amodioa usuario zaharrera tratatu duen azken sortzailea izan da, gogoa zeharo itsutzen duen irudi batetaz ezin libratu den irudimeneko gaitz moduan, alegia. Gaitz hori mania bihurtuz gaitzagotu liteke. Horrez gainera mania hori hainbeste larritu liteke, non antzinako greziarrek bere erremedio bakartzat «Leucadiaren jauzia» zeukaten, alegia, morbosoz bere burua harkaitz konkorratetik itsasora botatzea; bizirik ale batzuk ateratzen omen ziren, eta hala hil zela diote Safo sonatua.

Feijook amodioaz diona, askoz tentuzkoago eta zinezkoago da Voltairek diona baino, honek ez baitu betiko leloa errepikatu baizik egiten, eta baita Humerena baino ere, honek ere ez baitu koadro simetrikoki eta errazegia besterik egiten, amodioari eta harrotasunari izaera atsegina emanez eta gorrotoari eta apalkeriari atsekabea; inoiz giza-diaren atsegin iturri oparo izan ez balira bezala gorrotoa eta apalkeria; eta amodioak eta harrotasunak sekula inor atsekabetu ez balu bezala.

Feijooen ondotik, amodioaren morboa, ez da halakotzat hartua izan, eta hainbesteari no gainera, non «morbo» hitzak, betidanik «gaitza» besterik adierazi ez duenak, gau-

regun halako zentzu nabarra duen, osasun ezarekin baino gehiago espezia eta beste pizgarri sentsualekin nahasten dena. Orain espainolez «mórbido» esatean, «gaitza» esan alde, «irrikaz hozkatua, begizkatua, edo eskuzkatua izateko prestatua» esan nahi da; eta frantsestan eta italieran bihurtura berbera eman du hitzak, izan ere, ongiez poetikoan erotzeraino galdu diren hizkuntza baitira biok.

Amodioaren morboa goralduta aldarrikatu dutenak poetak izan baitira, Platon buru dutela erromantizismoarekin galdurra jo arte. Platonek, bere mania simetrikoki eutsiz, eza edo ezina jakinduri bidez kittatzeko gradu «goitarra» ematen dio amodioari, bidenabar lilura sentsuala «behetar» joaz. Hala, bidea urratutik utzi dio amodio kristauari, non Jainkoak eta bere sorkariek, amodio «goitarretan» enpo eginak, elkar bilatzen eta gogoratzen baitute zeruko esferatan galdurik.

Eta horrela segitzen du nere lagunak, gizaldiz gizaldi poeta ahul horiek zutik ezin egon ahala gizendu duten «morbo amorosaz» hitzegiten. Nere lanetan txarrena Emily zela esan zidan behin. «Morbo amorosaren kiratsa zeriok. Utikan!». Eta estimu haunditan daukat nik, txatarro zar honek, nere lagun zahararen urrea; gure artean esker gaiztorik osasungarriena erakutsi duen medikua izan baitut.

Eta Pessoa datorkit gogora: «amodio erromantikoa, eragin kristauaren mendez mendeko azken fruitua da, gorputz gabeko jantzi polixko asmatu bati segika egiten den desilusio bidea».

Izan ere, amodio erreprimituak askoz hobeki argitzen baitu amodioaren fenomenoa, amodio espermentatuak baino. Egiteak ematen du noski bere poza, baina, itsutu egiten du: aspertu edo biziatu.

Ziria

• Motxorrosolo •

Atorrak

Larre motzean ohituak, ur handitan murgiltzeko tentazioa heldu zitzaigun. Uherrak ziren, nonbait. Trabeskako soa bazter orotan. Zerraldoa jantzi dotorez apaindu beharrean, kolore biziko atorrak anitzen bizipoz baka-rra.

Xabi eta Raul

IRUÑEKO EHGAM TALDEKO KIDEAK

«Askatzen joateko toki bat behar dugu; ez dugu 'ghetto' bat nahi»

Ekainaren 1ean ireki zen Iruñeko alde zaharreko Aldapa kalean EHGAM taldeak gayen integrazioa bultzatzeko sortu duen bulego berria. Xabi Sanchez Goronaeta eta Raul Lopez Ekai EHGAMeko kideek bulegoaren inguruan hitz egin digute.

KANPOTIK DENDA BATEN itxura izan arren, Aldapa kaleko 3 zenbakian gay munduarentzat erreferentzia izan nahi duen bulegoan aurkitu ditugu Xabi eta Raul.

■ Nola sortu zen bulego berri hau irekitzeko ideia?

Eslaba kaleko beste lokal batean biltzen ginen, baina oso ezberdina zen, ez zen karrikatik ikusten. Lokal berri hau ageriago geratzen da, eta jende pila bat etortzen denez gugana ez genuen nahi toki itxi batean sartu. Ez dugu bereizirik edo *ghetto* batean egon nahi, baina askatzen joateko toki bat behar dugu.

■ Zer eskaintzen diezue bertara biltzen direnei?

Gay munduarentzat erreferentzia izan nahi dugu. Jende gehienak laguntza bila jotzen du gugana: homosexualitatea gaitzesten duen gizarte batean bizitzeagatik bere burua onartzeko arazoak dituzten pertsonak dira gehienbat. Bestalde, informazio bila etortzen denik ere bada, ikasleak, soziologoak...

■ Zein dira zuen asmorik garrantzitsuenak?

Gauza asko egin nahi ditugu, diskriminazioa baztertu eta jendea gayen arazoan aurrean sentikorrak bihurtu, ikastola eta institutuak hitzaldiak eman, IHESaren aurkako kan-

painak egin eta abar. Baina honen guztiaren gainetik gay, lesbiana eta pertsona transgenerikoei lotsa edo beldurra baztertu eta beren aukera edo izaera afektibo-sexuala modu positiboan onar dezaten nahi dugu. Gayenganako tolerantzia gaitzesten beharra dago, bikote heteromonogamoen bide estua aukera bakarra ez dela ezagutarazi, eta gure aukera gizarteratzeko.

■ Diskriminazioak jasan dituzten lagunei laguntza juridikorik eskaintzen al diezue?

Bai, taldeko kide izan ez arren, oso gertukoak diren abokatuak baditugu, eta aholkularitza juridikoa eskaintzen digute. Horretaz gain, psikologoek laguntza ere eskaintzen dugu. Erasoak izan diren kasuetan akusazio partikular gisa ere aurkeztu izan gara, baina kasu askotan erasoak jasan duen pertsonak, bere intimitatea galtzeko beldurrez, ez du salaketarik egin nahi izaten.


■ Iruñeko zenbait tabernatan etorkinei sarrera galarazten diotela salatu berri dute arrazakeriaren aurkako zenbait taldek. Zuen kolektiboak izan al du era honetako arazorik?

Ez, Katalunian izan dira horrelako arazoak, baina Iruñean ez; hain zuzen ere, Alde Zaharreko zenbait tabernatan jarrera homofobikoak salatzen dituzten kartelak ugari dira, eta tabernako bezeroren batek bikote homosexual baten aurrean okerreko portatera izan duenean tabernariak haiek kanporatu izan dituzte.

■ Jende asko joan al da bulegora ireki zenuenetik?

Bai, gay mundua gertuago-

«Homosexualitatea gaitzesten duen gizarte batean bizitzeagatik bere burua onartzeko arazoak dituzten pertsonen laguntza eskaintzeko gaude»



s o s l a i a

Xabi eta Raul Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduko kideak dira (EHGAM). Mugimendu honek hogeitaz baina gehiago daramatza EAEn funtzionatzen, eta Nafarroan azken hamabi urteetan martxan da ((1982tik 1985era ere aritu zen).

Talde asanbleario gisa antolatuta, asteartean biltzen dira, Iruñean. Orain arte Eslaba kalean zuten egoitza, baina ekainaren hasieratik aurrera, Aldapa kaleko etxabe batean ireki dute bulego berria; egunero, 18:30etik 20:00etara Xabi bertan izaten da, laguntza eskaintzeko prest.

Sexu seguruari buruzko informazioa eta materiala, biblioteka, bideoteka, hitzaldiak, pelikula emanaldiak, informazioa, erasoak salatzen laguntza, laguntza juridikoa eta beste hainbat gauza eskaini nahi dituzte etorkizunean, bulego berria oraindik ez baitute behar bezala prestatu.

tik ezagutu nahi duen jendeaz gain, kalean paseoan zebilela sartutako jenderik ere ez zaigu falta izan; kalean bertan dagoen toki ireki bat izanik, normala eta polita da hau. Ekainaren 1ean zabaldu genuen bulegoa; EHGAM-Gipuzkoak 20. urteurrena ospatzeko egindako erakusketa daukagu ikusgai, baina oraindik material gutxi dugu. Hala ere, jendea etortzen da. Uda osterako dena behar bezala egotea espero dugu.

■ Biblioteka bat eta bideote-

ka bat osatzeko asmoa ere baduzue, ezta?

Gure asmoa ez da dokumentazio zerbitzu bat lortzea, baina material pixka bat badugu. Jendeak etxean gay mugimendurekin nolabaiteko lotura duten liburuak, bideoak edo bestelako materialak baditu, begi onez ikusiko genuke gure bulegora ekartzea. Era honetan, denborarekin dokumentazio zerbitzu garrantzitsu bat izatea lor dezakegu, baina jendea bulegora etorri, liburu bat hartu, sofan eseri eta lasai-lasai irakurtzen ikustea gustatuko litzaiguke gehienbat.

■ Datorren asterako ekitaldi ugari antolatu dituzue, ezta?

Bai, asteazkenean gayen eguna ospatzen denez, aste osoan zenbait ekitaldi egingen

ditugu. Astelehenean, 20:00etan, Hizkuntza Eskolan transexualitateari buruzko hitzaldia izanen da, eta hizlari Frida izanen da. Asteartean Golem zinematik @IStone-wall@- filma eskainiko da. Asteazkenean, manifestazioa egingen dugu Gaztelu enparantzan. Ostegunean, film laburrak izanen dira ikusgai gaztetxean. Eta ostiralean, @IEI armario, una cuestión de ebanisteria@- izenburupean, Gasteizko Oker Taldeko kideek homosexualitatearen onarpenari buruz hitz egingen digute. Larunbatean, aste gutxi ekinzei amaiera emateko asmoz, festa bat egingen da gaztetxean: 22:00etatik aurrera kabareta eta D.Jak izanen dira.

→ Asier Legarda



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

'A por ellos'

Osasunazaleek beren futbol taldea animatzeko erabiltzen duten oihua da, baina gaur ez naiz futbolaz arituko. Gainera, ez da prezeski Indar Gorrikoek sortutako oihua. Duela bi urte, Miguel Angel Blanco Ermuko PPko zinegotzia ETak hil zuenean, Ermuko izpiritupean Madrilén sortutako oihua izan zen, abertzaleak zantpatzera deitzen zuena hain zuzen. Nafarroan euskarak eta euskaltzaleek gisako egoera bizi dute gaur egun. UPNko gobernua, PSNren laguntza estimagaitzarekin, euskararekin zerikusirik duen guzia baztertzera eta zantpatzera deitzen ari da. Hizkuntz Politikako goi karguek dimisioa aurkeztu dute eta Gobernuak enbidoari hordagoarekin erantzun dio, hogeita hamaika eskutik duenaren segurtasunarekin: Hizkuntz Politika eta Unibertsitateak bat egiten ditugu eta Pegenaute jauna ezarriko horren guziaren buru. UPNko militantea ez bada sinpatizante ezaguna eta euskaraz tuitik ere ez dakiena. Euskara aitzinera ateratzeko behar zena! Satrustegi euskaltzainak erran duen bezala, "azeria jarri dute oilategia zaintzen". Erdaldunak diskriminatuak omen daude (?), lanpostu bat eskuratzera omen garrantzi gehiegi ematen omen zaio euskarari (?), Nafarroako eremu mistoko ikastolak egoera alegalean ez ezik ilegalean ere omen daude eta zalantzan jarri ditu ematen zaizkien diru laguntzak (?). Indarrean sartuko zaigu Pegenaute kargu berrira. Euskaraz sekulan erran duen hitz bakarra Osasuna izan omen da, UPNk berak Iruñeko taldeko lehendakari kargurako aurkeztu zuen kandidatura izan baitzen. Ez dakigu kargura ailegatuko balitz izena aldatuko liokeen, baina hasieran aipatu dut futbolaz ez naizela arituko.

Nafarroako euskararen egoera hori baino larriagoa da. Euskaltzaleen bila datoz azeriak, A por ellos oihupean, eta bien bitartean oiloarena egiten segitzen dugu. Oilartuko ote gara noizbait Nafarroako euskaltzaleok?

MUSIKA

- **Burlata:** Hemendik At! taldeak Eugenio Torres plazan joko du gaur, 20:00etatik aurrera.
- **Iruñea:** Gaur, Okrays taldeak runba flamenkoak eskainiko ditu, Erraldioen Txokoa, 20:00etatik aurrera.
- **Zangoza:** Pop-rock lehiaketaren baitan, gaur Carlos A. Verak Blues tabernan, 21:30ean, eta Arcanda taldeak, Landa tabernan, 23:00etan.
- **Lizarra:** Gaur Balerdi Balerdi taldeak kontzertua eskainiko du, Los Llanosen, gaueko hamabietatik aurrera.

BERTSOLARIAK

- **Baiona:** Xanti Iparragirre, Txato, Aitor Sarasua, Ortzi Idoate, Eneritz Zabaleta eta Ellande Alfarorekin bertso afaria egiten dute gaur, 19:30etik aurrera, Biltxokan. Ondoren, bertso-poteoa izanen da Baiona Tipiko ostatueta barna.
- **Arbizu:** Astelehenean bertso saioa izanen da, plazan, 20:00etan, Sebastian Lizaso eta Iñaki Muruarekin.

ANTZERKIA

- **Arribe:** TEN Pinpilinpauza taldeak Zapatak hondaturik antzez-lana taularatuko du igandean, 18:00etan, plazan.

ERAKUSKETAK

- **Zizur Nagusia:** Igandea arte, pintura lantegietan parte hartu duten 26 artistaren lanak ikus daitezke Kultur Etxean.
- **Iruñea:** Fermin Erbiti eta Javier Maneroren Sanferminak liburuan ageri diren argazkiekin erakusketa antolatu dute Zapateria karrikako aretoan. Argazkiak uztaillaren 16 arte daude ikusgai.

BESTELAKOAK

- **Barañain:** Igandean El Quixot konpainiak haur eta horren

haur ez direnentzako jokoak eskainiko ditu, Udaletxe plazan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

- **Zizur Nagusia:** Ipurtargi euskaltegiak antolatuta, Euskaldunon Erreniegarako III. Irteera egiten dute igandean. Goizeko hamarretan aterako dira euskaltegitik.

BESTAK

- **Ezkaroze:** Iganderako hainbat

ekitaldi antolatu dituzte Zaraitzuko ibarraren eguna dela eta: dianak, Mutil Gazteak txarangarekin (10:00); kontzertua, Ibarako Musika Eskolaren eskutik (12:30); Jaurrietako dantzarien eta Otsagiko dantzari ttikien emanaldia (13:00); herri bazkaria (15:00); eta dantzaldia, Osiris orkestraren eskutik (18:00).

- **Uhart:** Euskararen eguna ospatuko dute igandean.

Kalejira eta kultur ekitaldiak izanen dira herriko taldeekin, baita eskulangileen erakus-keta, herri kirolak, haurrentzako jolasak eta dantzaldia ere.

- **Mendabia:** IKAk euskararen aldeko eguna ospatuko du igandean herrian. Jaia goizeko hamabietan hasiko da, txupinazoarekin. Ondoren, kalejira egiten dute, eta puzgarriak paratuko dituzte plazan.

• IÑAKI VERGARA



Zuzenketa

Iragan astean, Arrotxapeko jaien egitaraua bildu genuen Nafarkaria-ko agendan. Zuzenketa egitera gatoz orain, auzoko jaiak bertan behera gelditu ziren eta. Herriak antolatutako bestak "debekatu" egin zituen Herriko Etxeak. Dirudienez, Kultur Aferen Batzordetik at antolatzen diren bestak ez ditu sobera gus-tuko Udaleko Gobernu taldeak, eta txosnak ez ezik, zezensuzkoak, kaldereteak eta haurren zaldiko-maldikoak debekatu ditu. Arrotxapearrak udaletxera joan ziren euren desadostasuna erakusteko, eta hantxe hanparatu zuten zapuzturiko jaien aztarna, herritar guzien etxeko atean. Asteburu honetan Donibane auzoko jaiak ospatu beharko genituzke. Udalaren legekeriek zintzilik uzten ez badituzte bederen.